## OSASUN ETA KONTSUMO BATZORDEA

Honen bidez jakinarazten dizut Osasun eta Kontsumo Batzordearen bilkura otsailaren 17an (asteazkena) izango dela, 11:30etan, Eusko Legebiltzarreko 1. aretoan. Hauxe izango da

### GAI ZERRENDA

1. 2009ko abenduaren 22an egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Osasun eta Kontsumoko sailburuaren agerraldia, Daniel Maeztu Perez Aralar taldeko legebiltzarkideak egindako eskaerari jarraiki, batzordeak eskatuta, azaroaren 13an Araiako ama batek izan zituen osasun-arreta arazoei buruz eta Osakidetzak landa-eremuetan dituen protokoloei buruz azalpenak emateko. (09\10\06\03\0094)
3. Osasun eta Kontsumoko sailburuaren agerraldia, Nerea Antia Vinós Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak egindako eskeari jarraiki, batzordeak eskatuta, sailburuak azaldu dezan zer-nolako esperientziak dituzten beste herrialde batzuek Eraginkortasun Konparatuko Agentzia bezalako zentroekin. (09\10\06\03\0099)
4. Aralar taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Osakidetzaren azpiegituretan dauden arropa-garbitegien inguruan. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0171]
5. Euskal Talde Popularrak aurkeztutako legez besteko proposamena, Diabetesari buruzko Euskadiko Batzorde Aholku Emailearen gainean. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida —halakorik balego—, eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0179]

## COMISIÓN DE SANIDAD Y CONSUMO

Pongo en su conocimiento que la Comisión de Sanidad y Consumo ha sido convocada para el día 17 de febrero, miércoles, a las 11:30, en la sede del Parlamento Vasco (sala 1), con arreglo al siguiente

### ORDEN DEL DÍA

1. Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 22 de diciembre de 2009.
2. Comparecencia del consejero de Sanidad y Consumo, a petición de la Comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D. Daniel Maeztu Perez, parlamentario del grupo Aralar, para exponer los problemas de atención médica sufridos por una madre de Araia el 13 de noviembre y para explicar los protocolos de Osakidetza para las zonas rurales. [09\10\06\03\0094]
3. Comparecencia del consejero de Sanidad y Consumo, a petición de la Comisión, de conformidad con la solicitud formulada por D.ª Nerea Antia Vinós, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, para exponer las experiencias de otros países en relación con centros como la Agencia de Efectividad Comparada. [09\10\06\03\0099]
4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo Aralar, sobre las lavanderías de las infraestructuras de Osakidetza, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0171]
5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo Popular Vasco, sobre el Consejo Asesor de Diabetes del País Vasco, y de las enmiendas presentadas, si hubiere. [09\11\02\01\0179]

6. Euskal Talde Popularrak aurkeztutako legez besteko proposamena, Barakaldoko Rontegiko auzotarrei Urbango osasun-zentroa izendatzeari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida —halakorik balego—, eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0193]

7. Eskariak eta galderak.

Eusko Legebiltzarra, 2010eko urtarrilaren 13a

Legelaria,

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo Popular Vasco, relativa a la asignación a los vecinos de Rontegui (Barakaldo) del centro de salud, y de las enmiendas presentadas, si hubiere. [09\11\02\01\0193]

7. Ruegos y preguntas.

Parlamento Vasco, 13 de enero de 2010

El letrado,

Eduardo Mancisidor Artaraz

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA · ENTRADA
2009 NOV. 26
Nº 4273 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

aralar

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkide **Dani Maeztu Perezek**, indarrean araudiaren babesean, **Rafael Bengoa Osasun eta Kontsumo Saileko sailburuaren** AGERRALDIA eskatzen du, 2009ko **Azaroaren 13an Araiako herritar batek izan zituen osasun-arreta arazoak azaltzeko eta Osakidetzak landa-eremuetan dituen protokoloak azaltzeko**:

**ZIOA:**

Azaroaren 13an Araiako lau urteko ume batek konorte-galtze bat izan zuen arratsaldeko sei eta erdietan. Ordu horretan Araian ez dagoenez ez medikurik, ezta anbulantziarik, umearen amak larrialdi zerbitzura (112) deitzea erabaki zuen. Telefonistak gertuen zegoen anbulantzia Agurainen zegoela (handik hamar kilometrora) adierazi zion, eta zonaldean guardian zegoen mediku bakarrarekin harremanetan jarri zuen.

Guardian zegoen medikuak amari aditzera eman zion Agurainen beste gaixo bat artatzen zegoela eta egokiena umea bere autoan Agurainera eramatea zela. Amak hala egin zuen. Medikuak Araian ikusi zuen umea eta sendatu egin zuen.

Orain bost urte antzeko zerbait gertatu zen, baina orduan gaixoa hil egin zen.

Egun Arabako zonalde horretako egoera sozio-ekonomikoa aldatu dela agerian dago. Osakidetzak ordea, zonalde hauetan erabiltzen duen protokoloa ez du berrikusi, egoera berri horretara egokitzeko.

**AGERRALDI ESKAERA:**

Hori dela eta, Rafael Bengoa, Osasun eta Kontsumo Saileko sailburuaren agerraldia eskatzen dut Osasun Batzordearen aurrean. **Azaroaren 13an Araiako herritar batek izan zituen osasun-arreta arazoak azaltzeko eta Osakidetzak landa-eremuetan dituen protokoloak zeintzuk diren azaltzeko.**

aralar

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**Gasteizen, 2009ko azaroaren 26an**

**Dani Meztu Perez**

Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea

## A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Pérez, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente SOLICITUD DE COMPARECENCIA al consejero de Sanidad y Consumo, Rafael Bengoa, a fin de que explique los problemas de atención sanitaria que tuvo un ciudadano de Araia el 13 de noviembre de 2009, así como los protocolos de Osakidetza para las zonas rurales.

**JUSTIFICACIÓN:**

El 13 de noviembre, a las seis y media de la tarde, un niño de cuatro años de Araia sufrió una pérdida de conocimiento. A esa hora en Araia no hay medico ni ambulancia, por lo tanto, la madre del niño decidió llamar al servicio de urgencias (112). La telefonista le comunicó que la ambulancia más cercana se encontraba en Salvatierra (a 10 kilómetros de distancia), y la puso en contacto con el único medico de guardia de la zona.

El medico de guardia explicó a la madre que él se encontraba en Salvatierra atendiendo a otro paciente y que lo más adecuado era que trasladase al niño en su coche hasta Salvatierra. La madre así lo hizo. El medico atendió al niño en Araia y lo curo.

Hace cinco años ocurrió algo similar, pero entonces el paciente falleció.

Resulta evidente que la actual situación socioeconómica de esa zona de Álava es diferente. Sin embargo, Osakidetza no ha revisado el protocolo que utiliza en esas zonas, para adecuarlo a esa nueva situación.

**SOLICITUD DE COMPARECENCIA:**

Por todo ello, solicito que el consejero de Sanidad y Consumo, Rafael Bengoa, comparezca ante la Comisión de Sanidad, a fin de que explique los problemas de atención sanitaria que tuvo un ciudadano de Araia el 13 de noviembre de 2009, así como los protocolos de Osakidetza para las zonas rurales.

En Vitoria, a 26 de noviembre de 2009

Dani Maeztu Pérez
Parlamentario del grupo Aralar

A LA MESA DE LA COMISIÓN DE SANIDAD Y CONSUMO

Nerea Antia Vinós, parlamentaria del grupo Euzko-Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento, solicita la comparecencia de D. Rafael Bengoa, Consejero de Sanidad y Consumo, ante la comisión homónima del Parlamento Vasco, al objeto de dar a conocer las experiencias existentes en otros países de agencias similares a la "Agencia de Efectividad Comparada" que se creará en Euskadi en 2010.

JUSTIFICACIÓN:

El 26 de noviembre de 2009 el Parlamento Vasco ha instado al Gobierno a crear en 2010 una agencia independiente, denominada "Agencia de Efectividad Comparada", para proponer las prestaciones susceptibles de ser incorporadas al Sistema Sanitario Público, realizar recomendaciones sobre la reorganización de la oferta sanitaria, así como el mejor uso posible de los recursos públicos.
Dado que, tal y como se dio a conocer en el pleno, hay una serie de organismos similares que pueden servir de referencia, se considera necesario conocerlos.

Gasteizen, 2009ko azaroaren 26an

Sin.: Nerea Antia Vinós

***Osakidetzaren azpiegituretan dauden arropa-garbitegien inguruan*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0171)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 15eko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Aralar legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Osasun eta Kontsumo Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Dani Maeztu Perez Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, "Euskadiko Osakidetzaren azpiegituretan dauden arropa-garbitegien" inguruko legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Zioa:

2002ko otsailaren 27an, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean egindako bilkuran, honako hau adierazten duen ekimena onartu zen: "Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatzen die, mantendu ditzatela Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko garbitegiak eta egin ditzatela garbitegiak modernizatu, egokitu eta hobetzeko egin beharreko inbertsio-planak".

2007, 2008 eta 2009. urteetarako Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan, berriz, honako hau esaten da: "Osakidetzak, akordio hau sinatuta, bere gain hartzen du Bizkairako ikuztegi zerbitzu propioa sortzeko konpromisoa. Konpromiso horren arabera, zerbitzua akordio horren indarraldian zehar abiaraziko da eta Osakidetzako zentroek azpikontratatutako zerbitzuak arian-arian hartuko ditu Osakidetzak bere gain, dagozkien kontratuak amaitu ahala".

Akordio horren indarraldia bukatzear dago eta oraindik zerbitzu hau azpikontratatzen jarraitzen da. Uste dugu azken urteetan ez dela nahikoa egin, Eusko Legebiltzarrak onartutako ekimena betetzeko eta Osakidetzaren lan baldintzak arautzeko akordioan jasotakoa betetzeko. Izan ere, gaur egun dugun egoera orain dela hiru urte genuen egoeraren parekoa da.

Horren aurrean, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du:

***Sobre las lavanderías de las infraestructuras de Osakidetza*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0171)

La Mesa, en su reunión del día 15 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Aralar, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Sanidad y Consumo, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Dani Maeztu Perez, parlamentario del grupo Aralar, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar para su debate en pleno la siguiente proposición no de ley, sobre las lavanderías de las infraestructuras de Osakidetza.

Justificación:

En la sesión celebrada el 27 de febrero de 2002 por la Comisión de Sanidad del Parlamento Vasco, se aprobó una iniciativa que recoge lo siguiente: "El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a Osakidetza-Servicio Vasco de Salud al mantenimiento de los servicios de lavandería de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud y a efectuar los planes necesarios para su modernización, adecuación y mejora".

Sin embargo, en el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo en Osakidetza-Servicio Vasco de Salud para 2007, 2008 y 2009, se dice lo siguiente: "Osakidetza asume en la suscripción del presente acuerdo el compromiso específico sobre la creación por parte del ente público de un servicio propio de lavandería para Bizkaia, comprometiendo su puesta en marcha durante la vigencia del acuerdo, para la asunción paulatina de los servicios subcontratados por los centros de Osakidetza según vayan venciendo los respectivos contratos".

La vigencia de dicho acuerdo toca a su fin, y aún se sigue subcontratando el servicio. Consideramos que en los últimos años no se ha hecho lo suficiente para cumplir lo establecido tanto en la iniciativa aprobada por el Parlamento Vasco, como en el citado acuerdo regulador de las condiciones de trabajo. La verdad es que actualmente nos encontramos en una situación similar a la de hace tres años.

Ante estos hechos, presentamos la siguiente proposición no de ley:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. 2010. urteko lehenengo hiruhilabetekoan, Osasun eta Kontsumo batzordean aurkez dezala plangintza zehatz bat, lurralde historiko bakoitzean kanporatuta dauden Osakidetzaren arropa garbiketa zerbitzuak Osakidetzak bere gain har ditzan. Bereganatze hori burutzeko, asko jota, 2 urteko epea izango du Eusko Jaurlaritzak.

2. Beti ere, enplegu zentro bereziekin kontratatuta dauden zerbitzuak errespetatuko dira; aurreko puntuan aipatzen den plangintzaren arabera, Osakidetzak zerbitzuren bat bere gain hartzea ezinezkoa balitz, gizarteratze enpresen erroldan erroldatuta dauden enpresekin kontratatzeari emango zaio lehentasuna.

Gasteizen, 2009ko abenduaren 3an

**Daniel Maeztu Perez, Aralar taldeko legebiltzarkidea**

***

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. 2010. A que presente ante la Comisión de Sanidad y Consumo, en el primer trimestre de 2010, un plan concreto para que Osakidetza asuma los servicios de lavandería que están externalizados en cada territorio histórico. El Gobierno Vasco tendrá un plazo máximo de 2 años para llevar a cabo dicha asunción.

2. En cualquier caso, se respetarán los servicios contratados con centros especiales de empleo; en el caso de que fuera imposible que Osakidetza asumiera algún servicio según el plan mencionado en el punto anterior, se dará prioridad a la contratación con empresas inscritas en el Registro de Empresas de Inserción.

Vitoria, 3 de diciembre de 2009

**Daniel Maeztu Perez, parlamentario del grupo Aralar**

***

***Sobre las lavanderías de las infraestructuras de Osakidetza*** (Enmiendas)
(09/11.02.01.0171)

La Mesa, en su reunión del día 7 de enero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, y ordena su remisión a la Comisión de Sanidad y Consumo y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco al mantenimiento de los servicios de lavandería de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, y a efectuar los planes de inversión necesarios para su modernización, adecuación y mejora".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que progresivamente se recuperen los servicios de lavandería, que hoy día están subcontratados, para que sean gestionados mediante servicios propios, teniendo en cuenta los servicios prestados por empresas de carácter social.

2. De conformidad con lo establecido en el primer punto, se garantizará un servicio de lavandería en el territorio histórico de Gipuzkoa (hospital Donostia) y en el territorio histórico de Araba (hospital Santiago), y, a medida que vaya desarrollándose el rescate de los servicios subcontratados, se acordará la implantación de un tercer servicio en el territorio histórico de Bizkaia".

***

***Osakidetzaren azpiegituretan dauden arropa-garbitegien inguruan*** (Zuzenketak)
(09/11.02.01.0171)

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 7ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Aralar legebiltzartaldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Osasun eta Kontsumo Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantendu ditzala Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko garbitegiak, eta egin ditzala garbitegiak modernizatu, egokitu eta hobetzeko egin beharreko inbertsio-planak".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berreskura daitezela, arian-arian, gaur egun azpikontratatuta dauden arropa-garbitegien zerbitzuak, zerbitzu propioen bitartez kudeatuak izateko, izaera sozialeko enpresek emandako zerbitzuak kontuan hartuta.

2. Lehenengo puntuan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako lurralde historikoan (Donostia ospitalea) eta Arabako lurralde historikoan (Santiago ospitalea) garbitegi-zerbitzua bermatuko da, eta azpikontratatuako zerbitzuen erreskatatzea garatu ahala, Bizkaiko lurralde historikoan hirugarren zerbitzu bat jartzea adostuko da".

***

***Sobre el Consejo Asesor de Diabetes del País Vasco*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0179)

La Mesa, en su reunión del día 21 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Sanidad y Consumo, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carmelo Barrio Baroja, Parlamentario del Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en Comisión, al Consejero de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco, sobre el Consejo Asesor de Diabetes del País Vasco.

Justificación:

El Consejo Asesor de Diabetes de Euskadi se creó por orden del Consejero de Sanidad de 8 de marzo de 1994 como órgano consultivo adscrito al Departamento de Sanidad para asesoramiento técnico en materia de diabetes.

El Consejo está compuesto por miembros designados por el Consejero de Sanidad teniendo en cuenta la representación de las asociaciones de diabéticos, las sociedades de endocrinología y nutrición, educadores de diabetes, etc.

El Colegio de Podólogos o cuando menos, representantes de los podólogos, especialidad en contacto directo con una de las expresiones de la diabetes, como es el pie diabético, no forman parte de este Consejo Asesor.

Por ello, se somete a la Cámara la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY:

***Diabetesari buruzko Euskadiko Batzorde Aholku Emailearen gainean*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0179)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 21eko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Osasun eta Kontsumo Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten dio Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumoko sailburuari, Diabetesari buruzko Euskadiko Batzorde Aholku Emailearen gainean, batzordean eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Osasuneko sailburuaren 1994ko martxoaren 8ko aginduaren bidez Diabetesari buruzko Euskadiko Batzorde Aholku Emailea sortu zen, Osasun Sailari atxikitako organo aholku-emaile gisa jarduteko eta diabetesari buruzko aholkularitza teknikoa emateko.

Batzorde hori osatzen duten kideak Osasuneko sailburuak izendatzen ditu, eta horretarako kontuan hartzen du hainbat elkarte eta talderen ordezkaritza: diabetikoen elkarteak, endrokinologia eta nutrizio elkarteak, diabetesaren arloko hezitzaileak, eta abar.

Batzorde Aholku Emaile horretatik kanpo geratu dira Podologoen Elkargoa eta podologoen ordezkariak, nahiz eta horien espezialitatea harreman zuzena duen diabetesaren eraginetako batekin, hots, oin diabetikoarekin.

Hortaz, LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkezten diogu Legebiltzarrari, onets dezan:

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco a que, modificando la orden de 8 de marzo de 1994, por la que se crea el Consejo Asesor sobre Diabetes en Euskadi, integre un vocal en representación del Colegio de Podólogos de Euskadi".

En Vitoria, a 11 de diciembre de 2009

**Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz**

***

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio alda dezala 1994ko martxoaren 8ko agindua, Diabetesari buruzko Batzorde Aholku Emailea sortzeko dena, eta Euskadiko Podologoen Elkargoaren ordezkari bat sar dezala batzorde horretan".

Gasteiz, 2009ko abenduaren 11

**Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Leopoldo Barreda de los Ríos, bozeramailea**

***

***Relativa a la asignación a los vecinos de Rontegui (Barakaldo) del centro de salud de Urban*** (Admisión a trámite)
(09/11.02.01.0193)

La Mesa, en su reunión del día 7 de enero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Sanidad y Consumo, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Esther Martínez Fernández, Parlamentaria del Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de someter a la consideración de la Cámara la siguiente proposición no de ley, con solicitud de su tramitación ante el Pleno, relativa a la asignación a los vecinos de Rontegui (Barakaldo) del Centro de Salud de Urban.

Justificación:

Los vecinos de Rontegui han reclamado desde hace más de 15 años la apertura de un Centro de Salud en el barrio; estas peticiones han sido reiteradamente obviadas por parte de los anteriores ejecutivos.

Finalmente se van a atender sus demandas y se dispondrá del necesario Centro de Salud en el barrio; sin embargo a lo largo de las últimas semanas Osakidetza ha remitido una carta a los vecinos informándoles que se cambia el Centro de Salud que actualmente vienen utilizando en la C/ La Felicidad para pasar a ser atendidos en Urban.

Es ésta una noticia sorpresiva para los vecinos y que parece fruto de la improvisación por parte de los responsables de Osakidetza porque a nadie se le escapa que este traslado generará las molestias derivadas de la falta de accesibilidad y adecuada conexión entre Rontegui y Urban.

Las personas con discapacidad física, las personas mayores y las familias con niños verán incrementadas las dificultades de acceso a la asistencia en un Centro de Salud que ya acumulan a día de hoy.

Por lo expuesto, se somete a la consideración de la Cámara la siguiente proposición no de ley

***Barakaldoko Rontegiko auzotarrei Urbango osasun-zentroa izendatzeari buruz*** (Tramitatzeko onartzea)
(09/11.02.01.0193)

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 7ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Osasun eta Kontsumo Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Esther Martínez Fernández Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Barakaldoko Rontegiko auzotarrei Urbango osasunzentroa izendatzeari buruz.

Arrazoiak:

Rontegiko auzokideek auzoan Osasun Zentro bat zabaltzeko eskatu izan dute joan deneko 15 urteetan; eskabide horiei entzungor egin izan diete automatikoki aurreko gobernuek.

Azkenean haien eskabideak kontuan hartuko dira eta auzoan beharrezkoa duten Osasun Zentroa egingo dute; hala ere, azken asteotan Osakidetzak gutun bana bidali die auzokideei esanez ezen aurrerantzean gaur egun erabiltzen duten La Felicidad kaleko Osasun Zentroaren ordez Urbanekoa erabili beharko dutela.

Harridura surtu die berri honek auzokieei eta Osakidetzako arduradunen inprobisazioaren ondorio ematen du, denok baitakigu leku-aldaketa horrek hainbat deserosotasun ekarriko dituela ibilerraztasunik eza eta Rontegi eta Urbanen arteko lotura egokirik eza direla-eta.

Ahalmen-urritasuna duten pertsonek, adinekoek eta haurrak dituzten familiek gaur egungoak baino are eragozpen handiagoak izango dituzte Osasun Zentroaz baliatzeko.

Esandakoagatik, honako legez besteko proposamena aurkezten dugu osoko bilkuran eztabaidatzeko:

"El Parlamento vasco insta al Gobierno Vasco

1. A poner en marcha las medidas necesarias para que los vecinos de Rontegui (Barakaldo) sigan siendo atendidas en el Centro de Salud de La Felicidad

2. A poner en marcha los mecanismos necesarios para que el nuevo Centro de Salud de Rontegui sea una realidad en el menor tiempo posible".

En Vitoria, a 21 de diciembre de 2009

**Esther Martínez Fernández, parlamentaria del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz**

***

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Har ditzala hartu beharreko neurriak Barakaldoko Rontegiko auzokideek arreta La Felicidad-eko Osasun Zentroan jasotzen jarrai dezaten.

2. Jar ditzala abian jarri beharreko mekanismoak Rontegiko Osasun Zentro berria lehenbailehen egina izan dadin".

Gasteizen, 2009ko abenduaren 21ean

**Esther Martínez Fernández, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Leopoldo Barreda de los Ríos, bozeramailea**

***